

2026. URTEKO DIRULAGUNTZA

ESKORIATZAKO UDALA

ETA

GOROSARRI DANTZA TALDEAREN ARTEKO HITZARMENA

ESKUe47df07-7422-4e9c-8cf0-84a4c6e8ea68



BILDURIK

ALDE BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria jauna, **Eskoriatzako Udalaren** izenean eta ordezkartizan.

ETA BESTETIK, Leire Astiasaran Villar, **Gorosarri Dantza Taldearen** lehendakaria, elkartearen izenean eta ordezkartizan.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta, beraz, honako hau.

ADIERAZTEN DUTE

Gorosarri Dantza Taldea 1966. urtean eratu eta harrez gero elkarte gisa gora-behera eta mugimendu desberdinak izan ondoren, 2024. urtean berriro indartu zen, elkartearen ardura bere gain hartuko zuen talde gaztea izendatuta.

Gorosarri dantza taldeak urtean zehar Eskoriatzako Udalarekin lankidetzan jarduten du, kultura-emanaldietan parte-hartuz eta horiek indartuz, hala nola Gaba baltza, Kukumarro eguna eta herriko jaiak.

Gorosarri dantza taldearen helburua da Eskoriatzan euskal kulturaren berezko adierazpena den dantza sustatu, transmititu eta plazaratzea. Eta Eskoriatzan herri kultura bizirik mantentzeko ekarpena egitea.

2026. urtean Gorosarri dantza taldea sortu zeneko 60. urteurrena beteko da eta taldeak hainbat ekintza berezi antolatuko ditu herrian bertan; eta gainera, herrikanpora ere zenbait emanalditan parte-hartuko du.

60. urteurren hori ospatzeko ekitaldi zentrala, 2026ko maiatzaren 16an antolatuko du, egun osoko egitaraua prestatuta. Egitarau horretan, 60 urtean dantza taldean parte-hartu duten adin desberdinetako eskoriatzarrak elkartuko ditu.

Bestalde, Eskoriatzako Udalak 2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako bosgarrena EUSKARA izeneko da.

Plan Estrategiko horren 2026. urteko ekitaldian, bosgarren lerro estrategiko horren E programa "*Gorosarri dantza taldea - 60. urteurrena*" izeneko da. Eta programa horren helburua da "*Dantza taldearen 60. urteurreneko ekintzak antolatzeko dirulaguntza ematea*".

Hori horrela, Eskoriatzako Udaleko 2026ko aurrekontuetan 4.300 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusi da, 0400.481.335.50.01 partidaren kargura, Gorosarri euskal dantza taldearentzat..

Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorreko 22. artikuluan, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla Toki Erakundearen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.



Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, bi aldeek hitzarmena sinatuko dute eta hitzarmenean dirulaguntza arautuko duten baldintzak xedatuko dira.

Hauek dira, bada, bi aldeek adostutako

BALDINTZAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmen honen helburua da 2026ko udal aurrekontuan Gorosarri dantza taldearen izenean dagoen dirulaguntza izenduna antolatzea. Dirulaguntza hori elkarteak 60. urteurreneko ospakizun-jaia finantzatzen laguntzeko erabiliko da.

BIGARRENA.- ESKORIATZAKO UDALAK EGIN BEHARREKOAK.

Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du Gorosarri dantza taldeari 4.300 ,00 euroko dirulaguntza emateko, 0400.481.335.50.01 aurrekontu aplikazioaren kargura, 2026ko ekitaldian elkarteak antolatuko duen Gorosarri dantza taldearen 60. urteurreneko ospakizun-jaiko gastuak finantzatzen laguntzeko.

Udalak, gainera, elkarteak egun hori antolatzeko behar duen udal materiala eta lokalak doan utziko dizkio elkarteari.

HIRUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri eta zazpigarren baldintzan zehaztutako justifikazio epea amaitu baino lehen egiten direnak.

Diruz lagungarri izan daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu tipologia zehazteko ondorengo mugak ezartzen dira:

- Elkarrearen administrazio eta antolaketa barne kostuek ez dute dirulaguntzarik izango.
- Ez dira onartuko bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzuko gastuak, diruz lagundutako ekintzan sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago.
- Ez dira onartuko gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legezko baliodun faktura edo egiaztagiritzat jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez badituzte; salbuespena hitzarmen honen 7.h) puntuan zehaztutakoa izango da.



LAUGARRENA.- BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRITASUNA ETA FINANTZIAZIO MUGAK

Emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntzekin. Hala ere, inolaz ez da gain-finantziatorik onartuko. Horrelakorik gertatuz gero, emandako dirulaguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

BOSGARRENA.- GOROSARRI DANTZA TALDEAREN BETEBEHARRAK

- Dirulaguntza emateko arrazoia den jarduera egitea.
- Baldintzak bete direla eta jarduera egin dela justifikatzea.
- Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea jarraipena egin ahal izateko eta Udalak laguntza eman ahal izateko.
- Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, Udalari horren berri ematea.
- Udalak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta jardun horiek egiterakoan eskatzen zaien informazio guztia ematea.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu baditu, Udalari jakinaraztea. Laguntza horien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta edozelan ere, funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- Zerga betebeharrak egunean izatea hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean.
- Gorosarri dantza taldeak, berak berezko jardunean egin ohi duen moduan, egitarauari loturiko ekintza guztiak euskaraz egitea. Eta behar izango balu, euskara zerbitzura jo ahal izango du argitaratu beharreko edozein testu itzuli edo zuzentzeko.
- Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduerak garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
- Jarduerak sorrarazitako dokumentazio eta inprimatutako propaganda guztietan Udalak diruz lagundutako ekintza dela adieraztea.
- Jarduera eta ikuskizun publikoen antolaketari buruz indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu dakioken estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere. Gorosarri dantza taldea izango da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakarra, eta beraz, jarduera normaltasunez edo normaltasunetik kanpo egiteagatik ondare erreklamaziorik sortuko balitz, bera izango



da horri aurre egiteko erantzule zibil bakarra. Hori horrela, erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da udala.

SEIGARRENA.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO EPEAK

Dirulaguntza modu honetara ordainduko da:

- % 60a hitzarmen hau sinatu ondoren.
- Gainerako %40a, organo eskudunak dirulaguntzaren kitapena onartutakoan; hau da, diruz lagundutako jarduerak 7. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta, erabat eta zuzen justifikatutakoan.

ZAZPIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Diruz lagundutako ekintza justifikatzeko Gorosarri dantza taldeak 2026ko irailaren 31 baino lehen aurkeztu beharko du dokumentazioa Eskoriatzako Udaleko Erregistro Orokorrean.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- a) **Eskaera orria.**
- b) Jarduera egin dela eta helburuen **betetze maila egiaztatze txostena.**
- c) **Dokumentazio grafikoa** (kartelak, liburuxkak, argazkiak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
- d) **Diruz lagundutako jardueran izandako sarreraren eta gastuen balantzea**, hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion egiaztatze, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da. Eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
- e) **Idazkariak egindako ziurtagiria** diruz lagundutako jarduerarako jasotako dirulaguntzei eta gainerako sarrerei buruzkoa, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe.
- f) **Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua.** Zehaztu beharko dira hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.
- g) Jardueratik egindako gastuen **jatorrizko fakturak** behar bezala beteta. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako dirulaguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan. Fakturak, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:
 - Faktura egin duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.
 - Elkartek ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, kostu totala unitateko, kostu totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten



operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da. Ez da onartuko fakturarik pertsona fisikoen izenean.

h) Salbuespen gisa, lege ezarritako baldintzak (BEZ, autonomoetan alta, JEZ eta abar) betetzen dituzten fakturak egiteko moduan ez dauden pertsonak emandako zerbitzuetan edo egindako lanetan, ordainketa jasotzen duenaren jasotze-agiria onartuko da fakturaren ordezkotzat bezala, betiere, gutxienez ondoren esango diren datuak baldin baditu, kobratutako kopurua ez baldin bada 125 € pertsonako baino handiagoa eta fakturatzat hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten gastu ohar edo dokumentu guztien batuketara ez bada jardueraren gastu guztiaren %25a baino handiagoa:

- **Kontzeptua:** Gorosari dantza taldearen 60. urteurreneko ekintzekin bat datorrena izan beharko da.
- **Ordainketa data:** Gorosari dantza taldearen 60. urteurrena antolatzen den data ingurukoa izan beharko dena.
- Ordaindutako **zenbatekoa** zehaztu beharko da.
- Ordainketa jasotzen duenaren **identifikazioa** (izena, 2 abizen eta NAN) izan beharko du.

Fakturen edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

Gastuak justifikatzerakoan aurkeztutako dokumentuetan izandako faltsukeriagatik, zehaztasun ezagatik edo akatsengatik egon daitezkeen gorabeherak zigortu egingo dira dirulaguntza kitatzerakoan

ZORTZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta, orokorrean, etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: euskara teknikaria eta euskara arloko zinegotzia edo berak izendatutako beste kide 1.
- Gorosari dantza taldearen aldetik: elkartearen lehendakaria eta berak izendatzen dituen kideak.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA SUNTSITZEA

Hitzarmen hau alde biek hala adosten dutenean suntsituko da. Era berean, alderen batek baldintzetakoren bat betetzen ez duenean ere suntsitu egingo da, betiere, hilabete aurretik alde horri kontratua suntsituko dela era fede-emailean jakinarazi eta gero.



HAMARGARRENA.- IZAERA

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebatziko dira.

Eta, ados daudela adierazteko, alde bietan hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ESKORIATZAKO UDALA

GOROSARRI DANTZA TALDEA



EKS | CSV: ESKUe47dff07-7422-4e9c-8cf0-84a4c6e8ea68

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=03410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=03410>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026EDI20002-Hitzarmena/Hitzarmena ()